

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren bitartez jendeari **laguntza eskaini** nahi diogu **modu erreazago batean jantzi** daitezen. Gazteei bereziki laguntzeko sortutako tresna da. Askotan, gazteok goizetan presaka gabiltzanean edo plan bereziren bat dugunean, ez dugu jakiten zer arropa aukeratu eta denbora asko galtzen dugu armairuaren aurrean. Horrelako egoeretan lagunduko duen aplikazio bat sortuko dugu, erabiltzaileek eguneroko jantziak aukeratzekoan ziurtasun eta lasaitasun handiagoa senti dezaten..

Gure aplikazioari esker norberak armairuan dituen arropen **argazkiak igotzeko aukera** izango du eta horien arabera programak, momentuko modaren arabera, egoera edo gertaera konketuren baterako outfit egokienak eskainiko dizkio. Horrela gure bezeroek ez dute egokitzen ez zaien arropa erabili beharko, aplikazioak haien benetako arropa eta estilo pertsonala kontuan hartuko baititu proposamen desberdinak egiteko.

Beste aplikazio batzuk antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten arren, askok ez diote erabiltzaileari benetako laguntzarik ematen; izan ere, ez baitiote aukerarik ematen bere arropa aplikazioan erabiltzeko. Honek mugatzen du erabilgarritasuna, izan ere, erabiltzaileak ezin du bere arropa modu praktiko eta errealistan konbinatu, eta horrek egunero jantzea errazteko helburua betetzea zailtzen du. Guk hutsune hori bete nahi dugu, **kalitate handiagoko zerbitzu bat eskainiz, praktikoago** eta egunero erabil daitekeen tresna bat sortuz. Proiektu honek **arropa aukeratzeko** laguntzeaz gain, gure bezeroak nahi duten bakoitzean erosoago eta seguruago senti daitezen laguntzen du, pertsona bakoitzari bere estiloa eraginkortasunez kudeatzen lagunduz. Helburua ez da soilik arropa aukeratzeko prozesua erraztea; baizik eta erabiltzaile bakoitzari bere **estiloa** modu argi eta polit batean **definitzen laguntzea**.

Amaitzeko, zure outfitak modu erraz eta azkarrean aukeratzeko laguntzen dizun APP bat izateaz gain, **gure markako arropa salduko** dugu. Gure marka propioarekin **ingurumenarekiko arduratsuak** izan nahi dugu gure jantzi guztiak **material jasangarri eta biodegradagarri** eginaz. Gainera, beste zerbitzu bat eskaintzen dugu, non bezeroek beste erabiltze batzuen **arropak alokatu edota erosten** dituzten.

